

«WÖRTER UND SACHEN» METODOAN OINARRI- TURIK DAGOEN INKESTA MOTA BAT

Ana M.^a ETXAIDE

Aski erabili ez dan metodo zahar bat

Denok dakizutenez, hizkuntzaren ikerlanetan, linguistikaren historiaren zehar, moda batek bestea atzean uzten duela ikusi izan dugu beti. Moda, berez, pasakorra da. Horrelaxe ikusi dugu linguistika historikaren iluntzea, estructuralismoak zekarren dizdiraren azpian. Bainan iluntze eta argitze horiek azalezkoak baizik ez dira izaten, gehienetan. Udarako eguerdi batean kaletik etxe barrura sartzen geranean ere, itsu gaudela derizkiogu; bainan poliki poliki txoko ilunenak ere argitzen hasten zaizkigu. Adibide ezagun batekin adieraziko dizuet: Estructuralismoa hizkuntza azterketaren metodoan aurrerapen izan ba-da ere, ez du esan nahi linguistika historikaren metodoak jarraitzea atzerapen danik, metodo hori ondo erabiltzen ba-da. Eta euskera-
ren alorrean behintzat —eta euskera ez dan alorrean ere bai— metodo zahar batzuk oraindik gutxitxo erabiliak dira.

Ez nijoakizue, bainan, linguistika historikari buruz egitea, metodo honen reakzio bezala sortu zan beste metodo batez baizik: alemanez *Wörter und Sachen* deitutakoa, gazteleraz *Palabras y cosas* itzulita. Euskeraz *Hitzak eta gauzak* esan beharko dugu noski, beste izen hobeagorik inork ez ba-dit eskeintzen behintzat.

Nola sortu zen

Joan den mendeko azkeneko urtetan —esan dezagun, mendearen azkeneko laurdenean—, Europan egiten ziran linguistika-lan gehienak, *neogramáticos de Leipzig* izendatutakoen metodoa jarraitzen zuten. Neogramatikoen metodoa, noski, fonetika historikaren aurrerapenarentzat txit egokia izan zan, bainan ezin isildu hizkuntzaren alderdi bat zokoratzen zuela: signo linguistiko-
koa forma ta zentzuz egina baldin ba-dago, zentzua bazertu eta formen aldaketaz bakarrik arduratzen ziran.

Eta bide honen estutasuna, hau da, giza-mintzaeraren eta giza-kulturaren zabaltasuna ezin adierazi zuela, laister nabaitu zuten aldi hartako filologo eta kulturzale haundienak; batez ere H. Schuchardt aipatu nahi dut haien artean, nahiz eta beste batzuk ere berekin kontatu behar. Hura izan bait zen, linguisten artean, ikuspen haundiena adierazi zuena zientzi honen maila guztietan.

Gottfried Baist (1853-1920) eta Hugo Schuchardt (1842-1927) hasi ziranean —Rudolph Meringer ere bai (1859-1920)— beren etimologi lanentzako metodo berriak saiatzten, linguista era berri bat sortu zuten: lan-gela uzten zutenen era, mundu zabalera irtetzeko: munduan, nekazarien munduan batez ere, bilatzen bait zuten, ez bakarrik gauzen izenak, baizik gauzak berak, hau da, adibidez: goldearen, edo gurdiaren, edo bihitegiaren forma, gaia, erabilkera eta beste xehetasunak. Gauzak, hau da, tresnak, eta baita famili eta herriko ohiturak ezagutuaz, etimologi-lanentzat zentzuaren alderdiko zatia osatuaz. Ez dezagun, ordea, uste, Schuchardt-ek, adibidez, etnologi-lanak linguistikaren laguntzaile bezala bakarrik bilatzen zituenik. Schuchardt-entzat, etnologia, linguistikaren parean, gira-zientziak osatzen aurkitzen da. Beste gizon jakintsuen erara uste bait zuen, zientzi bat bakarrik ez duela ongi adierazten gizonaren izate eta jarduera. Eta jakintsuen erara ere, bilatzen zituen bide berriak, aldenduak zeuden zientziak urbiltzen —gai berari dagozkioten zientziak, noski—.

Hitzak eta gauzak edo *gauzak eta hitzak* —Schuchardt-ek esatea maite zuen bezala— azterketa metodo bezala azaldu zuten gure mendeko lehenbiziko urtetan —aurkitu ditzakegu, noski, lehenago metodo honen aurrelari edo prekursoreak: Espainian Fr. Martín Sarmiento izan da aipatuena, baina beste nazioetan aurkitu dira baita XVII-garren mendean ere—

Metodoaren oinarriak

Dena dela, 1904-ean Meringer-ek eta 1912-an Schuchardt-ek agertu zituzten beren ideiak, metodo berri honen alde. Funtsean, honela laburtu dezakegu:

1) Ideiak zabaldu diran antzera, zabaldu da ere, munduan zehar, ikugarri diran gauzen kultura, hau da: nekazaritzako tresnak, etxeoak, bizibide edo ofizio guzitakoak.

2) Kulturaren kondaira egiteko, hizkuntzaren eta gauzen zientziak elkartu behar dira (Gauzak, metodo honen barruan, materialki ulertu behar ditugu batez ere, hori da, 'gauza materialak', 'tresnak'; baita ohiturak ere, baina gauzetan edo *rito*-etan korputz harturik batez ere).

3) Ez elkartu bakarrik; gauzak eta beren izenen hartu-emanak bilatu behar dira; eta gauzak, askotan aurretik dihoaz. Beharrezkoa da, beraz, gauzak

xehetasun guztiz estudiatzea. Haiek emango bait digute oinarria zentzuen aldaketak jarraitzeko.

Idazlan batzuk

Teori hauen ondoan, metodo berriaren eraikitzaileak utzi zizkiguten ere teori hauen ondoren izan ziran lan ugari. Meringer-en *Zu französisch «landier»* izan zen, nunbait, aipatuena Espainian, Mosén Griera-k Bilbon egindako *Curso Superior de Lingüística*-ren bitartez. 1909-an Meringer eta Meyer-Lübke-k eraiki zuten *Wörter und Sachen* aldizkaria, eta urte batzuk geroxeago, 1928-an, Hamburgo-n Fritz Krüger-ek azaldu zuen *Volkstum und Kultur den Romanen* aldizkariaren lehenbiziko alea. Bere Seminarioan egindako lanak batez ere azaldu ziran aldizkari hartan. Poliki poliki, hemen eta han, aldizkarietan edo ale banatutan azaldu ziran lan ugari —ez hizkuntza romanikoei dagokiotenak bakarrik, baita ere beste hizkuntza eta herri-ohiturari buruz—. Metodoaren garai sutsu eta frutu ugariak ekarri zituen bi gerrate artean jarri behar dugu, dudarik gabe.

Zail xamarra deritzait metodo honen frutu ugariak muga garbi baten barruan ipintzea. Esan daiteke metodo hau, berez, *interdisciplinar* dela, gutxienez bi zientzirekin zer ikusirik duena: linguistika eta etnologia, batez ere, baina baita ere historiarekin eta linguistikapean sartzen ditugun beste zientzi batzuekin: dialektologia, *geografía lingüística*, fonetika, *semántica histórica*, etab. Horregatik, noski, lan hauek, onak izanda ere, oso desberdinak dirala esan dezakegu. Batzuk linguistika aldera jotzen dute, beste batzuk etnologia aldera. Eta batak eta besteak begira dezakete *gauzen* sail haundi bat herrialde txiki batean edo, berriz, baita *gauza* bakar bat leku zabalago batean. Laburki, baina zerbait esan nahi dut eredu bezala begira ditzakegun lan batzutat, batez ere Romania-ri dagokiotenak, eta Euskalherriari ere, noski.

Max Leopold Wagner, Zerdeña-ko hizkuntza batez ere sakonki ezagutzen zuen romanista famatuak, 1921-an argitaratu zuen liburu garrantzitsuenetako bat: *Das ländliche Leben Sardiniens im Spiegel der Sprache*, hau da, «Zerdeña-ko nekazari-bizitza hizkuntza bidez agertua». Herriz herri ibili zen, orain aurkitzen ditugun erreztasunik gabe, Mediterraneo-ko ugartearen ohiturak, tresnak, esate baterako, nekazari-bizitza guztia ondo ezagutu arte. Eta horrela jaso zituen giza-bizimoduaren eta lan askoren hainbeste eta hainbeste xehetasun: lurgintza, artzaintza, ardogintza, etxeko eta nekazari-tzako tresnak, jaiotza, ezkontza eta heriotzari buruz. Gauza eta ohitura hauen izenak jasoaz linguista haundi bati dagokion ardurara guztiarekin.

Nahiz eta lan haundi xamarrago izan, 6 aletan azalduta, asmo berdintxoarekin egina dago ere Fritz Krüger-en lan ospetsuena: *Die Hochpyrenäen* «Goi-Pirineoak», 1937-an agertua.

Beste era batekoa dugu 1953-an J. G. Herculano de Carvalho-k argitaratu zuen tesisa: *Coisas e palavras. Alguns problemas etnograficos e linguisticos relacionados con os primitivos sistemas de debulha na Peninsula Iberica*, hau da, garaua lastoagandik banatzeko tresnak eta beren izenak. Ba-dirudi Coimbra-ko irakasle ospetsu honek —romanista bikaina, gero estrukturalismo aldera itzulita— asmo izan zuela *Wörter und Sachen* metodoaren gaitasuna azaltzea, alor berezi batean sakonduz alderdi guztietatik. Ikusgarria da, beraz, zenbat xehetasun azaltzen dituen eta zenbat ondoren atera, baita linguistika aldetik eta baita etnologiarenarengandik, garaua banatzeko tresna bati buruz, portugesez *mangual* esaten zaiona, gazteleraz *mayal* edo *trillo de mano*, idabur euskeraz. Etnologi aldetik, tresnaren forma, neurriak, zatiak, erabilkera aztertuaz, 4 klase desberdin daudela agertzen digu, eta mapa gainean nola banatutak diran ikusiaz, haien iturburuak bilatzen ditu arrazoi sakonak emanaz. Arrazoi ederrak ere ematen ditu, ezin hobeagoak, garaua banatzeko bi era nagusiak —eskuz edo abere bidez— zergatik erabili izan ohi diran jakiteko: Eta arrazoi horiek emateko erabili ditu, nahaste arrigarri batean, Espainiako, Europa guztiko, baita Asia eta Afrika zati batzuetako dato linguistikoak eta etnologikoak, baita beste zientzien datoak: historia eta geografiarenak batez ere. Beste aldetik, lehen beste linguistek emandako etimologi bat edo beste zuzentzen du dato berriekin; eta izenen aldetari buruz, luze egiten digu, ez fonetika aldetik bakarrik, baizik eta zentzuaren aldetik batez ere, azterketa onomasiologiko bat eginez.

Era berakoa dugu Manne Eriksson-ek egindako lana 1943-garren urtean, Iparraldeko Europa-n aurkitzen diran ohe eta logelari buruz —Romania-koa ez dan idazlanen bat aipatzeagatik—.

Atlas linguistikotzaz ere zerbait esan nahi dut. Eztabaida ugari izan dira atlasak etnologiari leku utzi behar ote dioten ala ez. Ez dut orain alde batera edo bestera jo nahi. Helburua zein dan, hartarako ipini behar bideak. Baina beharrezkoa da esatea, Jaberg eta Jud-ek AIS (*Sprach- und Sachatlas Italiens und der Südschweiz*) egin zutenetik (1928-1940), Romania-ko herrialdeen atlasak etnologiari leku nagusi bat eman diotela. Eta *Wörter und Sachen* metodo barruan edozeinek interpretazio lanik egin nahi ba-du, nahi eta nahiez, atlasak erabili behar ditu dato bila. Herculano de Carvalho-k, lehen aipatutako lanean ere, erabili zituen orduan argitaratuak zeudenak: AIS, *ALCat* (*Atlas Linguistic de Catalunya*), *ALEIC* (*Atlante linguistico etnografico italiano della Corsica 1933-1937*) eta *ALF* (*Atlas linguistique de la France, 1903-1910*). Zorigaitzez, atlasen aberastasuna etnologia eta linguistikaren alorretan gutxi erabilia dago oraindik, eta ona izango litzateke gehiago erabiliko ba-genitu. Interpretazio-lan ohien gutxien artean badugu orain gutxi argitaratutako liburu bat, *ALEA* (*Atlas lingüístico y etnográfico de Andalucía*)-ren mapa gainean egina: Julio Fernández Sevilla-ren *Formas y estructuras en el léxico agrícola andaluz*, 1975. Ikusgarria da nola erabiltzen dituen *ALEA*-n jasotzen diran datoak semantika estrukturala bitartez interpretatuaz.

Azkenik, aipatu nahi nituzke, nahiz etnologi aldera, nahiz linguistika aldera jotzen duten hainbeste eta hainbeste lan. Etnologi lan askok dakarzkite linguistikari interesgarri zaizkion dato ugari. Pentsa dezagun W. Giese-ren lanetan, batez ere *Los pueblos románicos y su cultura popular*, edo Euskalherriko etxeari buruz, *Terminología de la casa suletina* eta *Terminología de la casa vasca*; edo P. Rokseth-en *Terminologie de la culture des céréales à Majorque*, P. Bosch Gimpera-ren *Etnología de la Península Ibérica* edo R. Violant y Simorra-ren lanak, batez ere *El Pirineo español*; T. Aranzadi-ren *Etnografía. Sus bases, sus métodos y aplicaciones a España*, J. Caro Baroja-renak: *Los arados españoles, Disertación sobre los molinos de viento, Norias, azudas y aceñas*, eta Euskalherriari dagokiotenak, *La vida rural en Vera de Bidasoa, Etnografía histórica de Navarra, Sobre la casa, su estructura y sus funciones*; Barandiaran-enak buruan izango dituzute, noski, bainan zerbait aipatzeagatik, oroitu gaitezen bere *Idazlan osoen* III-garren alean azaltzen diranak etxeari buruz. Europa-ko beste herrialderi buruz dato ugari aurkituko dituzute Sever Pop-en oso ezaguna den *La dialectologie* liburuan.

Linguisten aldetik, lexikozko datoak jasotzen dituzten artean ere, ikusten dira lan ugari dato etnologikoak ematen dituztenak. Hauen artean aipatu nahi dut A. Roldán-en *La cultura de la viña en la región del Condado*, ardantzaren lanari buruz Huelva ondoko lurraldean.

Ez dakit lan mota hauek *Wörter und Sachen* metodoaren mugez barruan sartu ditezken ala ez. Ez dakit ere, Meringer-ek edo Krüger-ek zer pentsatuko luketen hortaz. Bainan lan hauek metodo honen itzalpean jaiok dirala ezin ukatu. Oraingo ikaskuntzetan ikusten dugun espezializazioak zail xamar ipintzen du linguistentzat etnologi alorrean sakontzea. Batez ere, orain linguistikari ate berri asko iriki zaizkiolako. Ezin esan dut euskerarentzat, beste metodoen artean, onena denik. Bainan alor guztietan bide asko daude. Eta euskal lexikoaren alorrean lan egin nahi duenari, etnologia ez baztertzeko esango nioke.

Euskal lexikoaren azterketa

Pasa gaitezen orain euskerari dagokioten ikerlanetaz hitz egitea. Hizkuntza mailetan, lexikoa dugu bat, sintasia edo morfologiaren ondoan. Gogoan daukat lexiko aldetik orain kezka haundiak dagozela Euskalherrian, hizkuntzak gaur behar duen gaitasuna izan dedin. Bainan kezka horrek ezin ahaztu arazi digu gaur euskerak daukan aberastasuna ondo jaso gabe dagola eta, beraz, galzorian. Azkuek hiztegia egin zuenean bazirudien dena jasora zegola. Bainan denok dakigu Azkueren hiztegia ez dala, ezta lexiko aldetik ere, euskera osoa, eta Azkue eta gero egin diran lexiko lanak ez dira ugariak izan, hain zuzen. Bainan lexiko ikerlanak egiteko, nora jo? Bai noski gure idazle klasikoetara, bainan baita ere herriko ahohizkuntzara. Eta orain, dialektologi ikastaro batean ari geranez, azken hortaz jardun nahi dut.

Badakigu euskerak ez dituala beretu beste hizkuntza batzuek sortu edo beretu dituzten zientzi edo teknikaren hainbeste hitz. Badakigu zenbat eragozpen aurkitzen dituzten hiztegi teknikoak egiten ari diranak. Bainan horrek ez du esan nahi euskerak hitz berririk sortu edo beretu ez dituenik. Hitz askoren falta baldin ba-dugu orain, beste asko sartu zaizkigu poliki poliki, beren indarrez eta, zorigaitzez, jasogabeak ditugu. Adibide oso ezagun bat jarriko dizuet: *sukaldea* zer dan denok badakigu. Bainan orain 100 urte —baita gutxiago ere— *sukaldea* era batekoa zen, eta orain herri koxkor batean eta baita baserrietan ere, ezagutzen dituzte hiru *sukalde* mota: *sukalde zaharra*, *cocina económica* esaten zaiona eta baita gasezkoa —butanozkoa— edo elektrikoa ere bai. Etxe batzutan bi erabiltzen dituzte: *sukalde zaharra* edo ekonomikoa gela berotzeko neguan, eta butanozkoa edo elektrikoa udaran. Ze zentzu ematen diote, ba, *sukalde* hitzari? Nola erabiltzen dute hitz hori? Eta zer izen ematen diote *sukalde* mota bakoitzari? Hizkuntza ondo ezagutu nahi ezker, xehetasun hauek ondo ezagutu behar dira; eta alde batean eta bestean ez dute *campo semántico* hori berdin antolatua, noski.

Lexiko arrunta alde batera utzita, pasa gaitezen orain beste alor batera: ofizio edo teknika batzuenara, betiko ofizioak izan diranak, bainan orain modu berrira antolatuak. Ikusgarri izango litzateke *Peru Abarka*-n azaltzen diran olako tresnaren izenak oraingo fundizio batekoenen aldean ipintzea. Bainan hori bakarrik egin daiteke, fabrika hortako langileek beren lanaren gauzetaz euskeraz egiten ba-dute. Orain Euskalherrian, adibidez, ezin egingo litzateke, nik dakitanez, gaztelerari buruz 1977-an M. V. Romero-k egin zuen lana zine eta telebistako jendeak beren lanerako erabiltzen duten lexiko bereziari buruz —*Vocabulario de cine y televisión*—. Romero-k jaso zituen inkesta bitartez, zine eta telebistako langileek —maila guztikoak, bai zuzendariak, bai gionistak, bai erdimailako langileak, bai fokistak eta behe mailakoak ere— bere lanerako erabiltzen dituzten hitz teknikoak. Horietatik asko izaten dira beste hizkuntzetatik hartuak —prestamoak—, bainan beste asko gazteleratik bertatik sortuak, morfosintasi bidez edo semantika bidez eratuak. Eta hizkuntzaren aberaste hau bakarrik gerta daiteke, hizkuntza hortan hitz egiten dan bitartean. Horregatik esaten nuen alperrikakoa dela orain Euskalherrian sortzen ari diran zine eta telebistan lexiko bila aritzea. Ez dakit egia izango ote den, edo ondo ulertu ote nuen, bainan esan zidatenez, espainiar injineruak, teknika nuklear lanetan hasi ziranean, gehiago nahi omen zuten beren artean ingelesez egin gazteleraz baino, ingelesez ikasi bait zuten teknika berria eta harekin hitzak ere bai.

Bainan badira ofizio asko —teknika guztiak ez dira nuklearrak ezta espazialak— Euskalherrian betidanik ezagutu direnak euskal lexikoa gorde eta berritzen dituztenak. Euskal lexiko hori ez dugu xehetasunekin ezagutzen, batez ere euskalki bakoitzean. Eta euskal lexiko zati horiek jaso behar ditugu, hitz zaharrak, zentzua espezializatu edo zabaldu dutenak, eta baita hitz berriak, beharrak sortu arazi dituenak. Zer alorretan? Nahi dezutenetan:

betiko nekazaritzatik hasita oraingo granja edo landetxe berri bateraino, lantegi txikietan, fabriketan, hango hizkera teknikoa euskera izatekotan.

Bainan, nola jaso? Modu diferenteak daude. Ondo egitekotan, denak baliotsuak izango dira. Hori, bakoitzak erabaki behar du bere gaitasuna, prestaera, gogoia, denbora edo kemena neurrituta. Batek maiteko du herriko kor bateko mintzaeran sakontzea, lexiko zabal eta iriki bat aztertuz; eta baita morfologia etabar; beste batek, ordea, nahiago izango du herrialde haundi xamar batean *campo semántico* bat sakonki aztertu. Modu guztiak balio dute, eta ez dut orain planifikaziorik egiteko asmoa. Denak onak direla azpimarratu nahi nuke.

Inkesta mota bat

Bainan ikastaro honen egitarauak dakarrenez, inkesra mota batez hitz egitea eskeini dut, eta egin behar. Ez bainan, modu bakarra ezta ez onena danik pentsatzen dutelako. Neri ondo dijoakit, eta orain arte erabili izan dut nere lanentzat eta nerekin lan egiten dutenek ere erabiltzen dute, batez ere orain arte Naparroako gaztelerari dagokionez. Barkatu, oraindik hitzaurrea baizik ez ba-dut egin, bainan hitzaurre luze xamar hau premizkoa iruditu zait nik orain proposatuko dizueten ikerlan mota honen oinarriak ipintzeko.

Lau zatitan agertuko dizuet: 1. Helburuak; 2. Gaia berezi. 3. Inkesta nola egin. 4. Ikerlana nola osatu.

1. *Helburuak*: Ikerlanaren helburua linguistikoa da; etnologi datoak jasotzen ba-ditugu ere, hizkuntzaren xehetasun batzuk obeto ezagutzeko bilatuko ditugu. Horrek ez du esan nahi, ordea, etnologiari dato horiek balioko ez diotenik.

Linguistika barruan, ikerlan hauek *lexikoari* batez ere dagokiote, nahiz eta hizkuntzaren beste xehetasun asko aurkitzen ba-ditugu ere. Garrantzi-suenak behintzat, agertu beharrak dira, ahal ba-da sakonduz, ezin ba-da, inkestaren datoak beste norbaiti eskeiniz, harek landu ditzan.

Eta dialektologi lanak diranez, berezi dezakegu nahi dugun lurraldea: herri txiki bakar bat, ibar bat, herrialde haundiago bateko herri batzuk sakabanaturik, euskalki oso bat, baita Euskalherri osoa.

2. *Gaia berezi*: Lehen esan dugun bezala, norbakoitzaren gauza da. Zer denbora eta zer erreztasun ditugun kontua. Badira ordea, gaien zerrenda dakarzkiten lan batzuk; handik ideiak atera ditzakegu gure lanetarako. Segurozki ezaguna duzute Barandiaran-ek egin zuen *Guía para una encuesta etnológica*, «Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra»-n azalduta, 1975-an. Beste gai zerrenda bat ikusi dezakezute «Revista de Dialectología y Tradiciones Populares»-en lehenbiziko alean, Vicente García de Diego-k egiten duen aldizkariaren aurkezpenean.

Beste aldetik, ondo mugatu behar da lana. Zenbat eta sakonago egin, hain eta motxago izan behar du gaiak. Nahiko aipatu dut Herculano de Carvalho-ren tesisa. Tesis batek eskatzen du, berez, egilearen prestaera adieraztea, eta prestaera hori —ez beharrez baina bai gehienetan— nabarmenago gelditzen da datoak ondo landuak azaltzen ba-ditu, eta ez bestela. Bainan lan guztiak ez dute tesisak izan behar. Eta merezi guztia ez dago sakontasunean bakarrik, baizik bilketan ere bai, ondo bildu ezkeru.

3. *Inkesta nola egin*: Lehenbiziko lana dugu erizkizundia edo kuestionarioa prestatzea. Lehenengo prestaketa bitartekoa izaten da, nahiz eta bibliografi ugari izan guren gaiari buruz; inkestak egiten hasitakoan osatuko ditugu. Lurralde zabal batean ari ba-gera, azkeneraino egon beharko dugu galderak osatzen, desberdintasun asko izaten bait dira leku batetik bestera. Bainan ona izaten da lehenbizikotik galdera sailak antolatzea eta beti orden berbera jarraitzea, gero askoz errezagoko izaten bait da datoak bilatzea transkripzioa egingakoan.

Leku bakoitzean pertsona egoki bat bilatu behar dugu erantzunak emateko. Gai monografikoak bait dira hauek, komeni da beti gai hori ondo ezagutzen duen bat bilatzea. Xehetasun gehiagorekin emango dizkigu erantzunak: arrantza bat arrantzari buruz ari ba-gera, eta erroa kontuan ari ba-gera, emakumezkoa hobe gizonezkoa baino. Ahal ba-da, probetxu handikoa izaten da ofizio edo lan bertan maila desberdinetako langileak erabiltzea. Ardantzari buruz inkestak egiten ari nintzala Kaskante-n galderak egin genizkien hiru gzonei: bat tasadorea zan, ia ia tekniko mailakoa, beste bat kapataza, beti ardantza lanean zebilena, eta hirugarrena peoia, aldizka lan egiten zuena. Hitz desberdinak erabiltzen dituzte maiz, Romero-ren lanean ikusi dezakegun bezela telebistako langile maila diferentekoekin.

Magnetofoiiez jasotzen ba-dugu hizketa guztia —orain denok horrela egiten dugu, nahiz eta notatxo batzuk hartu eskuz momentuan— onena izaten da pertsona bakar bati galdetu. Magnetofoiak, ahotsak nahastu ezkeru, ez bait du soinua garbirik ematen. Bainan hala ere, komeni izaten da bi edo hiru lagun elkartzea, gauza gehiago etortzen bait zaizkie burura, batak besteari eraginda.

Inkestari buruz, azkenekoz, esan nahi dut, lan hauetarako *conversación dirigida* esaten zaion metodoa iruditzen zaitela egokiena. Metodo hau ezin erabili da Atlas batentzako, inkesta luzatu egiten bait du. Bainan gure kasoan egin liteke. Eta askatasun gehiago ematen du, erantzuleak bere aldetik xehetasun batzuk osatzen ba-ditu. Guk berengandik ikasten dugu. Ez da beti gauza erreza inkesta hauek ondo egitea: alde batetik komeni da askatasun nahiko ematea, eta bestetik beti kontuz egon behar dugu denbora ez galtzarren, eta gaiak nahaspildu ez ditezen; inkesta gehiegi luzatzen danean, erantzulea nekatu egiten zaigu eta aspertu ere bai beste baterako.

4. *Ikerlana nola osatu*: Hiru zati deritzaizkit garrantzitsuenak ikerlan mota hauetan: etnologi deskripzioa, hiztegia eta lexikologi aldetik atera dezazkegun ondorenak. Lehenbiziko zatiari dagokiona, ataletan banatzea komeni ohi da. Adibidez, ardantzari buruz ari ba-gera: lurgintza, txertaketa, landarearen ipinketa, kimatzea, aihenak moztea, mahats bilketa, mahastiaren gaitzak eta zigorrak, ardantza-tresnak. Ahal ditugun xehetasun guztiak emanaz.

Hiztegiari dagokionez, dato batzuk dira beharrezkoak: herrialde osoan erabiltzen hitza ote dan edo ez; hitzak ditun zentzu guztiak eman (inkestan jasotakoak); jende guztien artean zabalduta ote dan edo ez; zer maileko hitza degun: teknikoa, herrikoa, etxeko giroan erabiltzen dana, etab.; sinonimoak baldin ba-ditu, zer zentzu-desberdintasunak dituen besteen aldean; fonetikazko aldaketak edo bariantek; aurkitu ditugun beste edozein xehetasun: singularrean edo pluralean bakarrik azaltzen diranean, aditza izan ezkerro, transitibo edo intransitibo bezela erabiltzen dan, etab. Hauek dira inkestan jasotako datoak. Dato hauek gehiago landu nahi ba-ditugu, ikusi dezakegu ere: beste lexikotan jasotako hitza ote dan edo ez, forma berarekin edo beste itxurako batekin. Zer euskalkietan jaso dan. Hitz ezezaguna baldin ba-da, nola eratu dagon ikusi eta ahal ba-da iturburua edo etimoa bilatu. Prestamo berri bat izatekotan, hizkuntza prestatariaren zentzu berean erabilia ote dan. Hitz ezaguna baldin ba-da, bainan zentzu desberdinarekin erabilia, zentzu aldaketa ikusi behar da.

Azkenekoz, hiztegian hitzak bana bana ikusita gero, ondorio batzuk sortuko dira nahi eta nahi ez hitz berriak eratzeko moduz, sufijo batzuen erabilkeraz, zentzuaren aldaketaz, (espezializazioak etab.), bilinguismoaren ondorioztaz. Eta mapa gainean hitz batzuek duten erabilkera ikusita, lurralde baten banatzen diran *area léxica* guztiak ere azalduko dira.

Bibliografi bildumak

M. ALVAR, *Dialectología española* (Cuadernos bibliográficos VII), Madrid, CSIC, 1962.

A. GRIERA, *Bibliografía lingüística catalana*, Barcelona 1947, 65-72 eta 75-78.

Homenaje a Fritz Krüger, Universidad Nacional de Cuyo, Mendoza, 1952-54, vol. I, VII-XXX (Krüger-en lanak).

Aldizkariak

Anuario de Eusko-Folklore, Vitoria 1921-1934 (I-XIV); San Sebastián 1955 (XV)-.

Butlletí de Dialectologia Catalana, Barcelona, 1913-1936.

Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra, Pamplona, 1969-

L'Italia dialettale, Pisa, 1922-.

Revista de Dialectología y tradiciones populares, Madrid 1944-

Volkstum und Kultur der Romanen, Hamburgo, 1928-

Wörter und Sachen, 1909-.

Teori-lanak

- M. ALVAR, *Los nuevos atlas lingüísticos de la Rumania*, Universidad de Granada, 1960.
- A. GRIERA, *Curso superior de lingüística*, Bilbao, 1921.
- A. GRIERA, *L'història dels objectes i l'estudi de les paraules*, BDLIC VI, 185-191.
- I. IORDAN, *Lingüística románica*, ed. M. Alvar, Madrid, Alcalá, 1967, 103-127.
- Ch. NYROP, *Linguistique et histoire des moeurs*, París, 1934.
- M. de PAIVA BOLEO, *Orientações da Filologia Românica na Alemanha e o Seminário Românico de Hamburgo*, «Biblos» VIII, 1931.
- J. L. PENSADO, *Fr. Martín Sarmiento: sus ideas lingüísticas*, Cuadernos de la Cátedra de Feijóo, Oviedo, Fac. Filosofía y Letras, 1960.
- S. POP, *La dialectologie. Aperçu historique et méthodes d'enquêtes linguistiques*, Lovaina, s/f, 2 aletan.
- A del RIO, *Los estudios de Jovellanos sobre el dialecto de Asturias*, RFH V, 209-243.
- G. ROHLFS, *Lengua y cultura*, Madrid, Alcalá, 1966.
- G. ROHLFS, *Estudios sobre geografía lingüística de Italia*, Universidad de Granada 1952.
- P. SCHEUERMEIER, *Methoden der Sachforschung*, VR I, 1936.
- R. VIOLANT y SIMORRA, *La labor del profesor Krüger y la etnología del Pirineo central*, «Ampurias» IV, 1942, 272-279.
- M. L. WAGNER, *Beziehungen zwischen Wort- und Sachforschung*, «Germanisch-romanische Monatsschrift» VIII, 1920, 45 eta urrengoak.

Euskalherriari dagokioten linguistika eta etnologi lanak

- M. AGUD, *Elementos de cultura material en el País Vasco (Nombres de vasijas y similares)*, (Euskal Historia, 13), San Sebastián, L. Haranburu, 1980.
- M. ALVAR, *Palabras y cosas en la Aézcoa*, Zaragoza, 1947.
- R. M. AZKUE, *Aezkera edo Petiriberro-inguruetako mintzaera*, Bilbao, 1928.
- R. M. AZKUE, *Particularidades del dialecto roncalés*, Bilbao, 1932.
- J. M. BARANDIARAN, *Guía para una encuesta etnográfica* «Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra» 1975, 277-325.
- J. M. BARANDIARAN, *Contribución al estudio de la casa rural y de los establecimientos humanos I. Pueblo de Ataun*, AEF V, 1925, ikus O. C. III, Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca, 1973, 199-228.
- J. M. BARANDIARAN, *Contribución al estudio de la casa rural y de los establecimientos humanos II. Pueblo de Kortezubi (Bizcaya)*, AEF VI, 1925, ikus O.C., III, 229-251.
- J. M. BARANDIARAN, *Los establecimientos humanos y las condiciones naturales. Pueblo de Aurizperri (Espinal)*, AEF VI, 1926, ikus O.C., III, 255-272.
- J. M. BARANDIARAN, *Contribución al estudio de los establecimientos humanos y zonas pastoriles del País Vasco*, AEF VII, 1927, ikus, O.C., 275-279.
- J. M. BARANDIARAN, *Los establecimientos humanos y las condiciones naturales. Barrios de Sasiola, Astigarribia, Olaz, Mixoa y Galdua (Deva-Motrico)*, AEF VIII, 1928, ikus O.C. 283-306.
- J. M. BARANDIARAN, *Contribución al estudio de los refugios del País Vasco*, AEF VIII, 1928, ikus O.C. III, 307-311.

- J. M. BARANDIARAN, *Bosquejo etnográfico de Sara*, AEF XVII-XXI, 1961-66.
- J. M. BARANDIARAN, *Industrias tradicionales derivadas de la leche en Ainboa* AEF, XV, 1955, 47-51.
- J. CARO BAROJA, *Un estudio de tecnología rural*, «Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra» I, 1969, 215-278.
- J. CARO BAROJA, *Etnografía histórica de Navarra*, Pamplona, Biblioteca de la Caja de Ahorros de Navarra, 1971.
- J. CARO BAROJA, *Sobre la casa, su estructura y sus funciones*, «Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra» I, 1969, 35-66.
- J. CARO BAROJA, *La vida rural en Vera de Bidasoa*, Madrid, 1944.
- Cuestionario para una investigación etnográfica de la vida popular*, AEF XIV, 1934 (por el laboratorio dirigido por J. M. Barandiarán).
- J. D'ELBEE, *Le pays basque français*, Burdeos 1943 (VKR XV, 339).
- J. GARMENDIA, *El «eskalapineilia» de Valcarlos*, «Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra» II, 1970, 221-226.
- W. GIESE, *Terminología de la casa suletina*, RIEV, 1931, XXII, 1-15.
- W. GIESE, *Terminología de la casa vasca*, RDTP IX, 1953, 569-600.
- M. GOÑI, *Estudio etnográfico de Elosua, Guipúzcoa*, AEF XXVIII, 1979, 83-180.
- K. GOÑI, *Estudio etnográfico del pueblo de Zerain, Guipúzcoa*, AEF XXVI, 1975-76, 255-442.
- J. M. LACOIZQUETA, *Diccionario de los nombres éuskaros de las plantas, en correspondencia con los vulgares, castellanos y franceses y científicos latinos*, Pamplona, Imprenta provincial 1888.
- F. LEIZAOLA, *Contribución al estudio del hórreo («Garrai») en la Navarra pirenaica*, «Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra» I, 1969, 363-386.
- V. PEREZ DE VILLAREAL, *Molinos y molinería. Arte y técnica por tierras del Baztán*, «Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra» IX, 1977, 219-256.
- H. SCHUCHARDT, *Sachwortgeschichtliches über den Dreschflügel*, ZRPh XXXIV, 1910, 254-294.
- E. TUDURI, *Cuestionario sobre artes textiles y sus aplicaciones*, AEF XIII, 1933, 219-277.
- Vida pastoril en el País Vasco*, AEF XV, 1955. (zenbait egile).

Penintsula Iberikari dagokioten zenbait linguistika lan

- M. ALVAR, *Los nombres del arado en el Pirineo*, «Filología» II, 1950, 1-28.
- R. del ARCO, *Costumbres y trajes en los Pirineos*, Zaragoza, 1930 (VKR V).
- M. L. C. BUESCU, *Monsanto. Etnografía e linguagem*, Lisboa, 1961.
- L. CHAVES, *Chaminés de Portugal. Famalição*, VKR III, 1929, 303.
- J. FERNANDEZ SEVILLA, *Formas y estructuras en el léxico agrícola andaluz. Interpretación y estudio de 200 mapas lingüísticos*, Madrid, CSIC, 1975.
- F. GARCIA MERCADAL, *La casa popular en España*, Madrid, Barcelona, 1930 (VKR IV).
- A. GRIERA, *La vinya, la verema, el vi*, San Cugat del Vallés, 1965.
- A. GRIERA, *L'aixada, l'aixadell i la filosa*, San Cugat del Vallés, 1946.
- A. GRIERA, *El jou, l'arada i el llaurar*, BDC XI, 1923, 80-101.

A. GRIERA, *Paraules i coses. Assaig de lexicologia sobre el «gresol» i el «fester»*. «Estudis Romanics» I, 1916, 84-90.

A. GRIERA, *Les esposalles*, VKR I, 202.

J. G. HERCULANO DE CARVALHO, *Coisas e palavras. Alguns problemas etnograficos e linguisticos relacionados com os primitivos sistemas de debulha na Peninsula Iberica*. Coimbra 1953 («Biblos» -i erantsitako XXIX garren alea.)

J. G. HERCULANO DE CARVALHO, *Coisas e palavras*, en *Estudos linguísticos* I, 2.^a ed. Coimbra, Atlantida, 1973, 113-123.

K. JABERG, *Les noms de la balancoire*, RPF I, 25.

F. KRÜGER, *Vocablos y cosas de Sanabria*, RFE X, 1923, 153-162.

F. KRÜGER, *Die Gegenstandskultur Sanabrias und seiner Nachbargebiete*. (La cultura material de Sanabria y de sus zonas colindantes), Hamburgo, 1925.

F. KRÜGER, *Die Nordwestiberische Volkskultur*, WS X, 45-137, gazteteraz. *El léxico rural del Noroeste Ibérico*, RFE Anejo XXXVI, Madrid, 1947.

F. KRÜGER, *Sach- und Wortkundliches von Wasser in den Pyrenäen* (Estudios etnográficos y lingüísticos sobre el agua en los Pirineos), VKR II, 1929, 139-243.

F. KRÜGER, *Worfeln und Verwandtes in den Pyrenäen* (Sobre el método de aventar cereales en los Pirineos), en *Miscelánea Alcover*, Barcelona, 1932, 509-524.

F. KRÜGER, *Notas etnográfico-lingüísticas da Póvoa de Varzim*, BF IV, 1936, 109-182.

F. KRÜGER, *O linho no Vale do rio Ibias (Asturias)*. *Estudo etnografico-linguistico*, en *Miscelánea Claudio Basto*, Porto, 1948, 193-207.

F. KRÜGER, *Cosas y palabras del Noroeste Ibérico*, NRFH IV, 1950, 231-253.

F. KRÜGER, *La tornería, supervivencia asturiana de un antiguo oficio europeo*, EDMP III, Madrid, 1952, 109-123.

F. KRÜGER, *La castaña en el N. O. de la Península Ibérica*. *Estudio etnográfico-lingüístico*, «Anales del Instituto de Lingüística de Cuyo», Mendoza, V, 1952, 105-208.

F. KRÜGER, *Die Hochpyrenäen*, 6 vols: A. *Landschaften. Haus and Hof* (Paisaje, la casa rural) t. I Hamburgo 1936; t. II, Hamburgo 1938; B. *Hirtenkultur* (El pastoreo), Hamburgo, 1935, VKR VIII, 1-103, Hamburgo, 1935; C. *Ländliche Arbeit*, t. I, *Transport und Transportgeräte* (Trabajos del campo. Transporte y medios de transporte), BDC XXIII, 39-240, Barcelona, Institut d'Estudis Catalans, 1936; t. II *Getreide, Heuernte, Bienenwohnung, Wein und Olbereitung* (Agricultura), Hamburgo, 1939; D. *Hausindustrie, Tracht und Gewerbe* (Industrias caseras, traje, oficios, pesca), VKR VIII, 210-328, Hamburgo, 1935.

F. KRÜGER, *Las Brañas. Ein Beitrag zur Geschichte der Rund-bauten im Asturisch-galizisch-portugiesischen Raum* (Las Brañas. Contribución a la historia de las construcciones circulares en la zona astur-gallego-portuguesa), *Congresso do Mundo Português*, Lisboa XVIII, 2, 239-292; VKR XVI, 1944, 158-203; gazteleraz, ikus BIDEA 8, Oviedo 1949.

F. KRÜGER, *El Pirineo español. Arte popular decorativo en Cataluña. La fiesta de Navidad*, «Anales del Instituto Lingüístico de Cuyo», Mendoza IV, 1950, 395, 404.

L. F. LINDLEY CINTRA, *Areas lexicais no territorio português*, BF XX, 1961, 273-307.

Y. MALKIEL, *Words, Objects, Images*, «Language» XXXIII, 1957, 54-76, eta *Essays on Linguistic Themes*-en, University of California Press, Berkeley-Los Angeles, 1968, 281-310.

O. RIBEIRO, *A propósito de areas lexicais no territorio português. Algumas reflexoes sobre o seu condicionamento*, BF XXI, 1962-63, 177-205.

A. ROLDAN, *La cultura de la viña en la región del Condado. Contribución léxica a la geografía dialectal*, Madrid, Anejos RFE LXXIX, 1966.

M. P. SANDIUMENGE, *La masía catalana*, Barcelona, 1929 (VKR V, 269).

A. ZAMORA VICENTE, *Léxico rural asturiano. Palabras y cosas de Libardón (Colunga)* Granada, 1953.

Península Ibericari dagokioten zenbait etnologi lan

Actas y Memorias de la Sociedad Española de Antropología, Etnología y Prehistoria, Madrid.

Anales del Museo del pueblo español, Madrid, 1931.

T. ARANZADI, *Etnografía. Sus bases, sus métodos y aplicaciones a España*, Madrid, 1917.

R. del ARCO, *Notas de folklore aragonés*, Madrid, 1943.

Boletín folklórico español, Sevilla 1885.

P. BOSCH GIMPERA, *Etnología de la Península Ibérica*, Barcelona, 1932.

J. CARO BAROJA, *Los arados españoles. Sus tipos y repartición*, RDTP V, 1949, 3-96.

J. CARO BAROJA, *Disertación sobre los molinos de viento*, RDTP VIII, 1952, 212-366.

J. CARO BAROJA, *Norias, azudas y aceñas*, RDTP X, 1954, 29-160.

J. CARO BAROJA, *Sobre la historia de la noria de tiro*, RDTP XI, 1955, 15-79.

Folklore y costumbres de España (Carreras y Candi-k arg.) Barcelona 1931-33, 3 vols.

W. GIESE, *Los tipos de casa en la Península Ibérica*, RDTP VII, 1951, 563-600.

W. GIESE, *Los pueblos románicos y su cultura popular. Guía etnográfico-folklórica*, Bogotá, 1962.

N. de HOYOS SANCHO, *La casa tradicional en España*, Madrid, 1959.

N. de HOYOS SANCHO, *El traje regional*, Madrid, 1959.

N. y L. de HOYOS, *Manual de folklore. La vida popular tradicional*, Madrid, 1947.

J. LEITE de VASCONCELOS, *Etnografía portuguesa I*, Lisboa, 1933 (VKR VII, 375-378); II Lisboa, 1936 (VKR X, 212).

V. RISCO, *Tierra de Melide*, Santiago 1933.

P. ROKSETH, *Terminologie de la culture des céréales à Majorque*, Barcelona, 1923.

R. VIOLANT y SIMORRA, *Elaboració del canem i de la llana al Pallars*, Barcelona 1934.

R. VIOLANT y SIMORRA, *El Pirineo español*, Madrid, 1949.

R. VIOLANT y SIMORRA, *La caça i la pesca al Pallars*, Barcelona, 1935.

R. VIOLANT y SIMORRA, *Costums de cria i de la matança del porc al Pallars Sobirà*, Barcelona, 1935 (VKR IX, 162-163).